



EUSKADIKO EKONOMIAKO IX. OLIMPIADA 2017ko APIRILaren 7a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- *Azterketak bigarren mailako batxilergoko “Ekonomia eta Enpresen Antolaketa”ri dagozkion bost galdera eta lehen mailako batxilergoko “Ekonomia” irakasgaiko 2 galdera ditu. Ikasleak, galdera hauetatik guztietarik 5 erantzun behar ditu, gutxienez bat “Ekonomia” irakasgaikoa izan behar delarik.*
- *Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa balioztatuko da bereziki.*
- *Azterketaren iraupena ordu 2 eta 30 minututakoa da.*

EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

1. GALDERA

PINZ SA enpresak aktibo eta pasibo korrienteen informazio hau aurkeztu du:

AKTIBO KORRIENTEA		PASIBO KORRIENTEA	
Amaitutako produktuen izakinak	50.000	Epe laburrerako zorrak kreditu erakundeekin	40.000
Bezeroak	30.000	Hornitzaileak	50.000
Altxortegia / Diruzaintza	20.000		

OHARRAK:

- Urteko salmenten zenbatekoa 400.000 euro da.
- Urtean egindako erosketak 350.000 eurokoak izan dira.

ARIKETAK:

- a) Kalkulatu errotazio funtsa, eta azaldu haren esanahia.
- b) Finantza zuzendariak uste du aproposa dela enpresaren errotazio funtsa handitzea, eta haren balio egokia 20.000 euro dela iruditzen zaio. Helburu hori lortzeko, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia laburtzea erabaki du.
 - Kalkulatu zein den hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia gaur egun.
 - Kalkulatu hornitzaileen batez besteko saldoa, errotazio funtserako proposatutako balioa lortzeko.
 - Kalkulatu hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldi berria.

2. GALDERA

Gaur egun, kontsumitzaileek hainbat aukera dituzte etxeko behar energetikoak asetzeko. Baina bistakoa da petrolioan, gasean eta elektrizitatean oinarritutako energia iturri tradizionalak garestiegiak direla. Ondorioz, bestelako energia iturriak erabili behar dira, hala nola eguzki energia eta energia eolikoa.

Aipatutako bi horien antzera, energia geotermikoa ere berriztagarria eta agorrezina da. Energia geotermikoak Lurrak igortzen duen beroa baliatzen du beroa, hotza eta elektrizitatea sortzeko. Kontsumitzaileen etxebizitzak berotu eta hozteko erabil daiteke energia geotermikoa. Etxebizitzetan energia mota hori baliatu ahal izateko, bero ponpak instalatu behar dira.

Espanian, oraindik oso gutxi erabiltzen da energia geotermikoa, baina, Suedian, Alemanian, Italian eta beste herrialde batzuetan jada gertatu den moduan, etorkizunean garrantzitsua izango da energia berriztagarrien artean, bereziki beroa eta hotza sortzeko. Hori ikusirik, “BIOT Energia Berriztagarria” enpresak Espainian CLAUSIUS markako azken belaunaldiko bero ponpak berak bakarrik banatzeko kontratua egin du.

ERANTZUN GALDERA HAUEI:

- a) Identifikatu bizi zikloaren zer fasetan dagoen Espainian CLAUSIUS markako bero ponpen banaketa. Azaldu bizi zikloaren fase horren ezaugarriak.
- b) Adierazi bizi zikloaren zer fase izango dituen etorkizunean CLAUSIUS bero ponpak.

3. GALDERA

HEGALABUR SA sozietateak finantza egoera hau aurkeztu du 2016ko abenduaren 31n.

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
ONDARE GARBIA	
Kapital soziala	100.000
Erreserbak	25.000
Ekitaldiaren emaitza	10.000
PASIBO EZ-KORRIENTEA	
Epe luzerako zorrak kreditu erakundeekin	40.000
PASIBO KORRIENTEA	
Epe laburrerako zorrak kreditu erakundeekin	30.000
Hornitzaileak	15.000
GUZTIRA	220.000

Adierazitako datan, enpresak 10.000 akzio ditu, eta horietako bakoitzaren kotizazio prezioa 13,5 euro da apirilaren 7an. 2017ko apirilaren 7an, enpresak kapital zabalkuntza bat egingo du, baldintza hauetan: beste 5.000 akzio jaulkiko dira, eta bakoitzaren prezioa 10,5 izango da.

Aitor Loiti jaunak 1.000 akzio ditu, eta kezkatuta dago kapital zabalkuntzak bere ondarean izan ditzakeen ondorioengatik. Aholku eskatu dizu.

ARIKETAK:

- a) Kalkulatu HEGALABUR SA enpresako akzio bakoitzaren balio nominala.
- b) Kalkulatu zer kontabilitate balio teoriko duen akzio bakoitzak kapital zabalkuntza egin aurretik.
- c) Kalkulatu Aitor Loitiren akzio bakoitzaren lehentasunezko harpidetza eskubidearen balioa.
- d) Aitor Loitik kapital zabalkuntzan akzio berririk ez erostea erabakitzen badu, zer ondorio izango ditu erabaki horrek?

4. GALDERA

FACULTY SA enpresaren Egoera Balantzea hauxe da 2016/12/31n (mila €-tan):

Aktiboa		Pasiboa	
Ibilgetua	980	Kapitala	1.000
Izakinak	140	Erreserbak	810
Bezeroak	830	Galdu-irabazia	(200)
Bankuak	100	Epe luzerako maileguak	310
Kutxa	20	Hornitzaileak	150
AKTIBOA, GUZTIRA	2.070	PASIBOA, GUZTIRA	

ERANTZUN GALDERA HAUEI:

1. Zein da enpresaren finantza egoera epe laburrean?
2. Kalkulatu maniobra funtsa, adierazi grafikoki eta komentatu/azaldu emaitza.

5. GALDERA

SARRIKO SA enpresak jakin nahi du ea 2015 eta 2016 urteen artean bere produktibitate globala handitu ala txikitu egin den, eta zer ehunekotan.

2015ean, enpresak gama altuko produktuaren 22.000 unitate eta gama baxuko produktuaren 26.000 unitate fabrikatu zituen, eta horien unitateko prezioa 300 euro eta 200 euro izan zen, hurrenez hurren. Produktuak fabrikatzen 4 langile aritu ziren, eta bakoitzak 1.200 ordu lan egin zituen. Lan ordu bakoitzaren kostua 7 eurokoa izan zen. Era berean, lehengaien 82.000 unitate erabili zituzten, unitate bakoitzaren prezioa 1,30 euro izanik.

2016an, gama altuko produktuaren 24.000 unitate eta gama baxukoaren 20.000 unitate fabrikatu zituzten. Langile kopurua eta horien kostua ez zen aldatu 2015. urtearekiko. 86.000 unitate erabili zituzten, 2015eko prezio berean.

Lortutako emaitzak ikusirik, zenbat ordu lan egin behar zituzten guztira 2016an, 2015eko produktu kopuru bera ekoizteko?

EKONOMIA

1. GALDERA

Zer da jarduera ekonomikoaren egonkortzaile automatiko bat? Balio erantsiaren gaineko zerga eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga egonkortzaile automatiko gisa jokatzeko duten politika fiskaleko neurriak dira? Arrazoi erantzuna.

2. GALDERA

El País

Urtarrilean inflazioa % 3ra iritsi da, argiaren eta gasolinaren igoeraren ondorioz

KPIa ehuneko bat baino gehiago hazi da abendutik, eta 2012ko urriaz geroztik izan ez dituen mailetara iritsi da

Javier Salvatierra, Madril, 2017ko urtarrilaren 31

Inflazioak ero-ero hasi du urtea, argiaren prezioek izan duten gorakada handiaren ondorioz. Urtarrilean, KPIa % 3 igo zen urte arteko tasan, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) asteartean argitara eman zuen datu aurreratuaren arabera. Indizea 2012ko urriaz geroztik izan gabeko mailetara iritsi da: igoera % 3,5koa izan zen orduan. Organismoak elektrizitatearen prezioen gorakadari egotzi dio inflazioaren bizkortze handia; izan ere, urtarrilean izugarri igo da, eta argiaren merkatu erregulatura atxikita dauden kontsumitzaileengan eragin du bereziki, hau da, etxebizitzan % 46,5engan, horiek handizkako merkatuan elektrizitateak ordu bakoitzean duen prezioaren arabera ordaintzen baitute. Tarifa erregulatua (kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa) duten kontsumitzaileek argiaren hurrengo ordainagirian islatuta ikusiko dituzte igoera horiek, eta dagoeneko nabari dira KPIaren adierazle aurreratuan, zeinak, datorren otsailaren 15ean berresten bada, duela lau urtetik izandako mailarik handiena erregistratuko duen, nahiz eta indizea % 0,5 txikitu zen hilabete arteko tasan.

EINK adierazten duenez, inflazioaren igoeran zerikusia izan du, halaber, erregaien (gasolioa eta gasolina) garestitzeak. Hona hemen indizearen igoeraren azalpena: "elektrizitatearen eta erregaien prezioek gora egin dute, eta iaz, berriz, behera egin zuten". Hau da, kontua ez da soilik garestitu egin direla, baizik eta iaz data berdinean merkatzen ari zirela; horrek are gehiago nabarmentzen du gehikuntza tasa, konparazioagatik.

Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministro Luis de Guindosek azken urtean "energiaren prezioak garestitu" izanari egotzi dio inflazioaren gorakada, baina adierazi du gorakada hori "aldi baterakoa" izango dela –iazko datuekiko alderaketaren ondorio–, eta espero du "bigarren hiruhilekotik aurrera inflazioa baretzea –"oinarri efektu" hori desagertzean– eta EBZren helburuetara jotzea: % 2tik hurbil, baina behetik". Ildo horretan, nabarmendu du azpiko inflazioa, kanpo uzten dituen energiaren eta elikagaien prezioak –aldakorrak–, "% 1aren ingurukoa dela oraindik". Hori dela eta, "bigarren txandako ondorioen" aurka ohartarazi du, hau da, prezioen igoera "zehatz" hori soldatetan txertatzearen aurka, "Espainiako ekonomiaren lehiakortasunean eragina izango bailuke horrek".

Bestalde, Pepe Álvarez UGTko idazkari nagusiak prezioen gorakadak pentsiodunek erosahalmena galtzea ekarriko duela azpimarratu du. "Guztiz onartezina iruditzen zait pentsioan 12 edo 20 euro igoera izan duen pentsiodun batek horrela hasi behar izatea urtea, hau da, argiaren fakturan 40-100 euro gehiago edo % 3 hori gehiago ordaindu behar izatea urtarrilean", adierazi du.

Ikusteko dago zenbaterainoko eragina izan duen IKPan argiaren prezioaren bilakaerak; izan ere, datu aurreratua argitara ematean, EINK ez du zehazten zenbat igo den errubrika bakoitza. Edonola ere, inflazioa EBZk ezarritako helburuetatik gora dago jada, hau da, % 2tik gora, eta maila horietan egonik, erosahalmena galduko dute bai pentsiodunek –Gobernuak % 0,25 bakarrik eguneratuko ditu pentsioak, legeak ezarritako gutxienezkoa–, bai funtzionarioek –horien soldata ez da % 1 baino gehiago igoko–, bai soldatapeko langile gehienek –hitzarmenetan adostutako batez besteko igoera % 1,06an geratu zen–. Hala ere, Kongresuan egindako agerraldian, Guindosek aipatu zuen batez besteko inflazioa negatiboa izan zela 2016an, % -0,2koa, eta ezeztatu egin zuen erosahalmenaren galera.

EINK jakinarazi du, halaber, KPI harmonizatua, EBko gainerako herrialdeekin alderatu ahal izateko prestatzen dena, % 3an dagoela urtarrilean, abendukoaren % 1,6 gainetik. Eurogunean, urtarrileko inflazio tasa % 1,8koa izan zen, Espainiakoa baino % 1,2 txikiagoa. Espainiako inflazioa Europakoa baino handiagoa denez, Espainiako ekonomiak erosahalmena gal dezake, esportazioetan eragina izan dezakeelako eta berekin ekar dezakeelako soldaten gorakada.

EINK azaldu du urtarrileko datua 2016an oinarrituta kalkulatu dela (orain arte 2011n oinarrituta kalkulatu zen), eta oinarri horretan "aldatu egin da erosketaren saskiaren osaera", prezioen indizea kalkulatzeko erabiltzen dena, eta "haztapen egitura eguneratu da", adierazlearen "adierazgarritasuna hobetzeko".

ERANTZUN GALDERA HAUEI:

1. Aipatu eta definitu azpimarratuta dauden hitzak, albistearen testuingurua kontuan hartuta.
2. Azaldu zer eragin izan dezakeen inflazioaren igoerak Espainiako ekonomian.
3. Inflazioaren igoeraren arrazoi nagusia kontuan hartuta, zer neurri har litzake Gobernuak inflazioa murriztu ahal izateko?